



Bertsozale Elkartearen Berripapera

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

Lesakan izango da Bertso Eguna, urtarrilaren 25ean

Sarrerak abenduaren 16an jarriko dira salgai eta orduan emango ditugu xehetasun gehiago.

Oraindik urtea bukatzeko denbora falta bada ere, bukatu bezain pronto iristen da bertsozaleen urteroko hitzordu nagusienetako bat: Bertso Eguna. Azken urteotan egin den moduan, lurraldez aldatuko da aurten ere eta Lesakan batuko gara bertsozaleok.

Urtarrilaren 25ean izango da bertsoaren festa handia, eta egun osoko plana ari gara antolatzen, Laboral Kutxa, Lesakako Udala eta Bortzirietako bertso-eskola lagun ditugula. Goizetik hasita, egun guztiko egitaraua izango da, bertsolarien ibilbidetik hasi eta sagardotegian afaltzeraino.

Abenduaren 16an jarriko dira sarrerak salgai bertsosarrerak.eus atarian, eta orduan emango ditugu xehetasun gehiago. Gorde data agendetan!

Urtez urte, lurraldez lurralde

Egun, Euskal Herri osoan mugitzen den egitasmo ibiltaria da, baina ez da beti horrela izan. Bertso Eguna, bere horretan, 1995etik antolatzen bada ere, hiru hamarkada lehenagotik ere ospatzen zen tankerako jaia: 1968an hasi zen antolatzen gaur egungo Bertso Egunaren aitzindaria, Bertsolari Eguna.

Bere izenarekin bat, hasiera hartan garaiko hainbat bertsolari omentzeko eguna izaten zen: Donostian antolatzen zen. 1987an sortu zen Bertsozale Elkarte, eta bere gain hartu zuen egunaren antolakuntza, Donostiako Udalarekin elkarlanean betiere. Horrela izan zen, harik eta 1995ean izena eta formatua aldatu zituen arte: Bertsolari Egunetik Bertso Eguna izatera pasatu

zen, eta omenaldi kutsua alde batera utzi zuen.

Bertso Egunaren hurrengo pausoa izan zen, gaur egungo formara iritsi arte, Donostia utzi eta herrialdez herrialde mugitzea: 2018tik aurrera horrela da, herrialde osoan eragitea baitu helburu. Pandemiak eraginda 2021ean eta 2022an data eta egiteko modua aldatu baziren ere, Bertso Egunak egin ahal izan genituen, eta 2023an egun osoko plana antolatzeari ekin genion berriro ere.



Gernika-Lumoko Astra gunean izan zen iaiko Bertso Eguna. //XDZ.



JULIO SOTO EZKURDIA

ZALDIBIA 2024-11-09

ZAPI JANZTEKO ZAPIDUNA

Doinua: Eguzkiak urtzen du han goian B

Ze bazkari ta ze bertso saio ta ze koruko kontzertu! Eskerrik asko zuri, Zaldibi hau nola bertsoz edertu? Pelicotenak erakutsi du gugan dagon ze desertu ze isiltasun dun anaidiak ta zenbat garen okertu! Ez dakit askok feminismoa egoki dugun ulertu pin morerik ez, behar dena da deseraiki eta lehertu txapelak kendu ditzagun eta izate berriz agertu. Seinale ona da egotea gizon bat zapitik gertu.

Azaroaren 23an jokatu da XI. Izeta Sariketa

12 bertsolari gaztek hartuko dute parte sariketan; egun berean jokatu dira kanporaketak eta finala, Baztango herri desberdinetan.

16 eta 30 urte bitarteko Nafarroako hamabi bertsolari gaztek hartuko dute parte XI. Mariano Izeta Bertso Sariketan. Nafarroako Bertsozale Elkartek eta Baztango Udalak antolatzen dute sariketa eta azaroaren 23an jokatu da, larunbata, Baztango hainbat tokitan.

Arratsaldean, aldibereko bi kanporaketa izango dira Erratzun eta Elizondon, seina bertsolariarekin. Lehenengo kanporaketa Elizondoko Intza tabernan jokatu da, 18:00etan hasita. Bertsolariak Beñat Astiz, Idoia Granizo, Eki Mateorena, Endika Legarra, Julen Bernaldo de Quirós eta Ainara Iregi izango dira. Bigarren kanporaketa Erratzuko Zubi-Punta tabernan izango da, 18:30etik aurrera. Bertsotan Mikel Lasarte, Ekain Alegre,

Ekhiñe Zaspaiain, Kattin Madariaga, Josu Txoperena eta Etxahun Azkarraga ariko dira. Bi kanporaketa horietatik sei sailkatuko dira gaueko finalerako.

Finala afalosteko saio gisara jokatu da, Elizondoko Kortarixar jatetxean. Finalerako sarrerak, afaria gehi saioa, www.bertsosarrerak.eus atarian eskuratu daitezke dagoeneko, 16 euroan. Afaria 21:00etan hasiko da.

2004. urtean antolatu zen lehen aldiz Izeta Sariketa eta Nafarroako bertsolari gazte eta hasiberriei bultzada ematea du xede, plazak eskainiz, haien bertsogintza garatu eta ezagutzera eman dezaten.

Berrikuntzekin dator Bertsolari Gazteen BBK Sariketa

Bertsolari gazteen plazaratzea da Bizkaian errotuta dagoen sariketa honen helburua; lehenengo fasea amaitu da eta hastear daude finalurrekoak.

Ibilbide luzeko sariketa da Bizkaian Bertsolari Gazteen BBK Sariketa: 32.a jokutzen ari gara aurten. Hala ere, etengabe berrikusi eta aldaketak egiten dira sariketa gaur egungo erreallitateara ekartzeko.

Eskualdeka jokatzetik taldean izena ematera pasa zen sariketa aurreko edizioan, eta nagusien mailan binaka kantatzeko saltoa eman da aurten, beste aldaketa batzuen artean. Dena den, helburua bera da: gazteak plazaratzea. Eta plazaratze hori taldean errazagoa denez, taldekako izaera dauka sariketak orain ere.

Ohiko moduan bi mailatan kantatuko dute bertsolari gazteek: batetik, 2006tik aurrera jaiotakoak; bestetik, 1999 eta 2005 artean jaiotakoak. Gazteen maila hasita dago kantuan; finalurrekoetan ekingo diete nagusienek.

Finala, abenduaren 5ean

Azaroaren 4an hasi zen sariketa eta hiru saio jokatu dira lehenengo fasean. Saioak goizez izan dira, ikastetxeetan.

Finalurrekoen fasea dator orain. Azaroaren 18an eta 20an jokatu dira, Gernika-Lumoko Elai Alai Aretoan eta Mungiako Mugire txokoan, hurrenez hurren. Finala, berriz, abenduaren 5ean jokatu da, Zornotzako Zelaieta Zentroko auditorioan.

Lehenengo fasea ez bezala, bigarren fase hau publiko orokorarentzako zuzenduta egongo da eta arratsaldez egingo dira saioak. Zatoz gazteak kantuan entzutera!



Bilbon jokatu zen aurtengo sariketako lehen saioa. //XDZ

Gipuzkoako adinekoen egoitzetan Bertso biran arituko dira

30 saio egingo dira udazkenean Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lankuk antolatuta; aurtengoa bederatzigarren edizioa izango da.

Gipuzkoako adinekoen egoitzetan bertso saioak eskainiko dituzte *Bertso Bira* kultur ekimenaren baitan; bertsoa erabilia, adinekoen bizi-kalitatea eta gaitasun kognitiboa hobetzea eta sustatzea du helburu ekimenak. Aurtengoa bederatzigarren edizioa du proiektuak, Lanku eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik; pasa den edizioetan *Adin-adin* izenez ezagutzen zen.

Dagoeneko hasiak dira egoitzetako bertso saioak: guztira 30 saio lotu dituzte Gipuzkoako 24 udalerritako egoitzetan. Saio bakoitzean eskualde horretako eta belaunaldi ezberdinetako bi bertsolarik hartuko dute parte; 34 bertsolarik, guztira. Horrela,

egoitzako egoiliarrei bat-bateko bertsoez gozatzeko aukera eskainiko zaie.

Proiektuak, aipatutako helburuez gain, egoiliarren parte-hartze aktiboa ere sustatzea du asmo, eta horretarako, saioen aurretik egoitzetako animazio eta dinamizazio langileek lanketa egiten dute egoiliarrekin: bertso zaharrak eta abesti herrikoiak lantzen dituzte, euren lehentasunak ezagutzeko. Parte-hartze aktibo horrek eragiten du gero, ezinbestean, parte-hartzaileen eta artisten arteko loturan.



Andoni Egaña eta Libe Goenaga, iazko ekimenean. //XDZ

Gida Bira ekimena jarriko dute martxan Bizkaiko museoetan

Bizkaiko museotan bisita gidatuak egingo dituzte, bertsolariek lagunduta. Hirugarren urtea du ekimenak.

Azaroaren 29tik abenduaren 3ra, Bizkaiko zenbait museotan bisitak bertsoek lagunduta jasotzeko aukera izango da. Bilboko Euskararen Etxeak eta Bizkaiko Museoekin elkarlanean, Lankuk antolatu ditu saioak. Guztira, 10 museoetan izango dira bisitak eta Bizkaiko 17 bertsolarik hartuko dute parte.

Egitasmoak helburu du bertsolaritza eta euskarak museoetan presentzia izatea, eta museoetako bisitariei bisita bereziak eskaintzea: bertsoetan, alegia. Aurtengoa hirugarren edizioa du proiektuak.



Puntu jarrita

NEREA BRUÑO ARTAZKOZ

Zure galderak, Joseba, harat honat jarri ditu nire oroitzapenak martxan. Harat honat esaten dudanean 30 urtetako atzera begirako bidaia goxoan murgildu naiz. Duela hiru hamarkadetako bertso-eskolek alde ederra zuten gaurko egunekoekin alderatuta. 1994ko Iruñea grisa datorkit burura. Iruñea grisa zelako garai hartan eta erdalduna, oso erdalduna. Eta tartean gu, Alde Zaharrera bidean hamabost urtetako gazte mundu-xukatzaile bertso-eskolararen bidean euskara hutsean esaldi bat josteko majo kostata ibiltzen ginenak, batzuk behintzat. Baina gu margotzeko jaiok ginen. Dena margotzeko zegoen garaian dena zen borondate, dena bertso truk. Makarroiak eta solomoa izan zen dozenaka aldiz gure ordainsaria. Iruñerriko auzo eta herri gehienetan gaztetxeak loratzen hasiak ziren eta ez zegoen ez kontzertu, ez bazkari, ez manifa, ez ekitaldi bertsozik gabe eta hori ere bertso-eskola bilakatu zen guretzat.

Ordurako aleka-aleka bertsozale klasean ematen hasiak ginen Nafarroako eskoletan. Ni zorionekoa izan nintzen, 12 urterekin bertso bakar bat ere entzun gabe hazitako neskatoa nintzen eta sekula itzaliko ez zitzaidan su bajua piztu zidan eskola arautuan hasitako ibilbideak. Lan hori ordea ez zen borondatekoa, edo ez bakarrik. Eta zenbat gauza margotu diren ordutik hona! Ederrenetarikoa bat, ederrena ez bada, feminismoak bertsozalearen iraultzeko izan duen gaitasuna izan da. Oraindik kolore batzuk falta zaizkion arren, orduan imajina ez genezakeen ortzadarraren aurrean kokatu gaituena. Borondateak ekarri gaitu gauden tokira, zalantzarik gabe, baina boluntarioak langileak dira eta lana duindu egin behar delakoan nago. Gaur egungo bertso-eskolen ehuneko handi-handi bat soldatapeko irakasleekin ematen dira nire inguruan.

Elortzak eta Sarriegik 2017ko BEC-eko finalean aski ongi azaldu ziguten aurrera begira borondateko lanak eta soldatapekoak eskutik helduta joan behar dutela. Baina beste mezu garrantzitsu bat ere iltzatuta geratu zitzaidan niri: kontuz ibili behar dugula egitura mantentzea gure helburua bihurtu ez izateko!! Gaur egun ordea bada auto-zaintzan eta modu erabat autonomoan bertsozale elkartzaren den jendea, demagun Erratzun, demagun balkoi batean. Alazne, kontatuko diguzu Baztango txoko eder horren berri?

Koplak

Gipuzkoako txapelketako finalurrekoak, zuzenean

Gipuzkoako Bertsozale Txapelketako finalurrekoak ikusgai egongo dira Etb4n. Ohiko moduan, Ilaski Serranok aurkeztuko du saioa, eta Jon Martin aditua izango du lagun. Lehenengoaren emankizuna egin zen igandean eta hurrengo bi igandetan ere izango da pantailaz bestalde bertsoarekin gozatzeko aukera.

Poto-Finixa



Barre ura

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Nafarroako Bertsozale Elkarteak administrazio teknikaria behar du

Elkartearen administrazio eta kudeaketa lanak egiteko langile bat kontratatzeko lan eskaintza atera du Nafarroako Bertsozale Elkarteak; urtebeterako lanaldi erdiz. Lan eskaintzari buruzko informazio osoa bertsozale.eus webgunean dago eskuragai.



Info + | Lanku www.lanku.eus

ZEHARKATU
GAITUENA
PERFORMATZEN

PUBLIZITATEA